

Irati Aiestaran Intxausti

A maila • 2 aipamena

Irati Aiestaran naiz, zaldibiarra. Mundu honetan daramatzadan 18 urte hauetan, beti izan ditut lagun idazketa, historia eta musika. Txikitatik hasi nintzen liburuetan irakurtzen nituenen antzeko istorioak idazten, nire irudimena libre utzita. Hala ere, gehien idaztea gustatzen zaidana gertaera historikoetan oinarritutako istorioak dira. Zirrargarria egiten zait nire burua gustuko dudan garai batean kokatu eta bertako biztanle bat naizela irudikatuz idaztea. Idazteaz gain, musika ere oso gogoko dut, gitarra eta txistua jotzen ditut. Esan nezake, nire sentimenduak hitzez azaltzeko ez naizela oso aditua, eta agian, horregatik daukat hain lotura handia bai musikarekin eta baita idazketarekin ere.



BELDURREZ BIZI

Ama gaixorik zegoen azken hilabeteetan, ezer egiteko gai ez zela, ahul. Uztaileko egun bero horietako ohiko ekaitza lehertu, eta izugarritzko euri-jasa hasi zuen. Nire besoetan anaia bana nuen afaltzeko prestatzen ari nintzen salda beroari birak ematen ari nintzen bitartean. Amaren logelara igo eta bere ohe ondoan eseri nintzen. Hirurei abestu nien lo-kanta, lotan errealitatean baino amets politagoak edukiko zituztelako esperoan: “Haurtxo txikia negarrez dago ama emaiouzu titia; aita gaiztoa tabernan dago, pikaro jokalaria ” Segituan hartu zuten lo. Malko hotz batek egin zidan ihes. Aita eta anaia fabrikatik etortzerako salda katilu bana prest utzi nien mahaiaren gainean.

Handik bi egunetara, 1936ko uztailaren 22an, nire aita amaren ondotik altxatzen sumatu nuen bezain pronto, bere aldamenean etzateko eta eskutik gogor eusteko beharra sentitu nuen. Bere ohean sartu eta munduko besarkadarik estuena eman nion. Handik gutxira arnasa estutzen hasi zitzaion.

“Hemen nau, ama, lasai” esan nion irrifar behartu batekin. “Neska indartsue zea, Maria, zaindu denak nire partez” esateko indarra atera eta azken arnasa eman zuen. “Zaindukoitut ama, eskerrik asko denagatik”. Muxu eman nion eta beti bezalako aurpegi goxoarekin geratu zen, bakean.

Hilabete gogorrak izan ziren handik aurrerakoak. 14 urte besterik ez nituen, aita eta anaia zaharrak Arzabalzan lanean igarotzen zuten egun osoa eta etxeko zeregin guztiak eta bi anaia txikien zaintza osoa nire esku geratu ziren.

36ko abuztuaren lehena zen. Aita eta anaia ohi bezala lanean zeuden eta ni etxeko ataria garbitzen nengibilen. Bat-batean, zerutik sua erortzen ikusi nuen. Danba! Sei bonba jaurti zituzten segidan Alegian bertan. Izugarritzko zalaparta sortu zen kalean: “Gerratorrela gerratorrela”

egiten zuen oihu jendeak. Egoera berri haren aurrean ikaraturik, bi neba txikiak ohetik atera eta ukuiluan ezkutatu ginen berehala. Negarrez hasi ziren, eta ni ere negarrez hasi nintzen zer gertatzen zen jakin gabe. Aita eta anaia onik ote zeuden kezka nerabilen buruan. Bozina hotsak, oihuak eta kotxe hotsa besterik ez zen entzuten kanpoaldean, herritar asko errefuxiatu ziren. Arratsalde osoa ukuiluaren babesean igaro genuen, bederatziak aldera etxeko atearen hotsa entzun nuen arte: Maria?! Maria?! Ahotsak ezagutu eta pozik hartu nituen bi txikiak besoetan aita eta anaiarengana igotzeko. Besarkada handi bat eman genion elkarri, ongi geunden guztiak. “Ze pasatua, atte? Ze izan die tiro hoik?” galdetu nion. “Frankistak datoz honeaka, gizon kalamidade batzuk. Zu lasai eon, etxen eotezean bitarten etzaizu eze pasakota” esan zidan. Zurbil ikusi nuen aita.

Hiru egun igaro eta inguruko miliziano guztiek defentsa-lerroa eratu zuten abuztuaren lauan Alegia inguru osoan. Egunero ehundaka gizon kaleetatik igarotzen ikusten nituen eskuan metrailadorak hartuta, ez zen beste inor ikusten, herritar gehienok leihoetatik ezkutuan begiratzen genien. Abuztuaren 5ean herri inguruko puntu altuak okupatu zituzten, tartean Aldaba. Beldurgarria zen entzuten zen tiro hotsa, nire aita ezin egonik ikusten nuen etxean, kezaturik. Gau hartan bertan, Migel eta Pedro txikiak lotan utzi nituenean, niregana etorri eta hau esan zidan: “Aldaban nire kide asko hildittuela iruitze zait, berta noa.” Hamaika aldiz erregutu nion etxean gera zedin, baina ez zidan kasurik egin. Gau osoa itzarrik pasatu nuen,aitaren kezkaz. Zorionez, goizaldera onik iritsi zen.

Hurrengo egunean, nire lagun min bat etorri zitzaidan etxera bisitan, Juanita. “Maria, zure atte bart Aldaban hil zittuen errepublikanok kanpusantun sartzen ibiliala zabaldua kalen, esaiozu kontuz ibiltzeko faborez, herrin beneno ‘aken jende asko dau ta haurki abixakoie militar frankistai ta”. Aitari azaldu nion Juanitak esandakoa, baina ez zidan jaramonik egin. Egun hartatik aurrera gizon isil bat bihurtu zen, oso arraro somatzen nuen, bere pentsamenduetan sartuta. Anaiarekin ere hitz egiten saiatu nintzen, baina “Lasai eon, ezta eze pasatzen” erantzuten zidan. Nik ere isiltzea eta etxeko arduretan murgiltzea erabaki nuen.

7ko goizean buila eta iskanbila handi batek esnatu gintuen denok. Leihoetara atera eta hantxe ikusi genituen egun haietan hainbeste entzundako frankista haiek. Bihotza atera beharrean neukan. Aitak eta anaiak etxeko ate guztiak, pertsiana guztiak eta leiho guztiak ixteko agindua eman zidaten, eta hala egin nuen nik. Txikiekin ohean sartu nintzen, amesgaizto hura noiz amaituko zain. Egun ilunak pasa genituen etxe barruan sartuta. Zorionez, baratzeko barazki nahikoa genituen eta ez zitzaigun jatekorik falta. Orduak jana prestatzen, arropak garbitzen, umeak zaintzen eta isilik joaten zitzaizkidan, hurrengo eguna iristeko ilusiorik gabe, zer etorriko zen beldurrez.

Arrotza zen guztia niretzat, ez nekien zer ziren frankistak, zer errepublikanoak, zer nazionalistak eta ezta militar haiek zer egiten zuten han ere, kaleetan zehar gora eta behera, zein zen borroka haren arrazoia. Ezjakintasun izugarria, eta inor ez azaltzeko gai.

Goizeko laurak aldera txikien negarrek esnatu ninduten. Beraingana hurbildu eta besoetan kulunkatuz lo har zezaten lortu nuen. Ohera sartzean, kanpotik zetozen hizketa hotsak entzutea iruditu zitzaidan. Leihoko gortina alboratu eta kalera begiratu nuen. Hiru gizon ikusi nituen oihaltzuri batez estalitako zerbait arrastaka eramaten. Bat-batean bihotza gelditu zitzaidan: haietako bat nire aita zen. Egia zen beraz Juanitak esan zidana, aita hildako errepublikanoak

lurperatzen ibiltzen zen gauetan. “Zure aita errepublikaren aldekoa da, Maria, eta frankistek gorroto dute hori, gorroto” Juanitak esandako hitz haiek burura etorri zitzaizkidan. Ez nekien zer zen Errepubliken aldekoa izatea, baina aita arriskuan zegoela banekien, frankista militarrek ikusiz gero edota herritarrek salatuz gero, atxilotu egingo zuten. Etxera etorri arte itzarrik itxaron nion nire ohean, bakarrik, beldurturik, gorputza hotz. Faltan botatzen nuen amaren goxotasun eta babesa, nire amesgaiztoak uxatzeko zuen gaitasuna. Hutsune handi bat utzi zidan bihotzean.

Aita etxean isilik sartzen antzeman nuen eta berarekin hitz egitera joan nintzen: “atte, zertan ibiltze zea? Leihotik ikusi zattut ta hola beste eozitiek inleike, militarrek enteatzebaie bakizu ze pasakoan”. “Ezta zure asuntza, Maria”. Etxe hartan egunak isilik eta serio pasa ziren. Batzuetan anaiarekin hitz egiten nuen, baina ez zidan ezer argirik esaten.

Irailaren 16an etxeko atea jo zuten, denok etxean geunden. Arraroa zen norbaitek atea jotzea, ezagun guztiek leihora hurbildu eta oihu egiten baitzuten. Neu joan nintzen irekitzera eta uniforme eta txapela berdez jantzitako bi gizon armatu topatu nituen, frankistak. “Buenos dias, se encuentra en casa el señor Manuel Iparraguirre?” Banekien berandu baino lehenago bere bila etorriko zirela. “No está en casa, ha ido a trabajar” esan nien aita salbatzeko asmoz. “Estoy aquí” esanez azaldu zen aita, burua tente. Ez nekien zertan zebilen, ni bera ezkutatzen saiatu nintzen eta bera hantxe aurkeztu zen. “Estás detenido” erantzun zuen haietako batek. Negarraren negarrez aitari eutsi, eta garrasika hasi nintzen mesedez ez eramateko eskatuz. “Eun batzuta bueltan izango naiz, lasai eon”. Nire anaia zaharrari ere malko bat atera zitzaion, baina ez zuen ezer esan. Handik gutxira dena ulertu nuen. Aitak bazekien bere bila etorriko zirela, horregatik zegoen hain serio eta isil azken asteetan, baina nahiago izan zuen bere printzipioak babestu, frankisten aurrean burumakurtu eta ezkutatzera baino. Gu ere atzean utzi gintuen.

Egun ilunak, tristeak, isilak etxe barruan eta zalapartatsuak kanpoan. Tiroak, propagandak, oihuak. Ez nekien aita zein espetxetara eraman zuten, ezta bizirik ote zegoen ere. Eskerrak, Jesus, nire anaia, lanetik etorritakoan nire ohean sartzen zen, laztanduz malkoak baretu eta lo har nezan. Ezin nuen gehiago, aitaren bila joan beharra neukan. Nora ordea? Aitaren lagun mina zen Nikolasen etxera joan nintzen ea non egon zitekeen ba ote zekien galdetzeraz. “Ondarretako kartzela eamangozuen segurona, baño gaixo horri, han eztakezu eze itteko, segi etxea”. Argi neukan ez nintzela etxean geratuko. Hurrengo egunean, nire anaia lanera joan eta berehala, txikiak bularrean lotu, aitari emateko bazkaria hartu eta tren geltokira abiatu nintzen, zer gertatuko zitzaidan beldurrez. Onik iritsi nintzen “kapitalera”, hainbesteko fama zuen Donostiara, lehenago joan ez nintzen hirira. Kale luzeak, etxe handiak. Gizon armatuak non-nahi, eta ni hain txiki, non nengoen ere ez nekiela. Zorionez, kartzela non zegoen argitu zidan emakume gazte eta adeitsu bat aurkitu nuen, eta hark lagundu zidan bertaraino. Hark esan zion nire partez sarreran zegoen militarri: “Buenos dias señor, venimos a ver a Manuel Iparraguirre”. “No se admiten visitas”. Errukiz “Por favor déjenme pasar, soy su hija, solo quiero ver cómo está” esan nion, nire gaztelera eskasean, ahal nuen moduan, hitz totelka. Neska gazte hark gizonarekin minutu batzuetako elkarrizketa izan ondoren, pasatzen utzi zidan. Nire momentuko poza segituan desagertu zen aitaren itxura ikustean. Zurbil, arropak urratuta, narrats. Gela hezeak, ilunak, zikinak, beldurgarriak. Negarrari eman zion bere bi seme txikiak eta ni ikustean. “Barkau, Maria, barkau” errepikatzen zuen kartzelako barroteen atzetik. “Lasai, atte, aurki ateako zattue ta denak etxen izangogea” esan nion nik. “Taa, taaa” esaten hasi ziren bixkiak aitari irrifarre eginez. Negar gehiago egin zuen. “Beida, atte, bazkarie

ekarritzut". Hori esatearekin batera, militar bat etorri, bazkaria lurrera bota eta arrastaka atera ninduen handik. "Maria!!" aitaren garrasia. "Atte!!" nirea.

Aita ikusteak animatu egin ninduen, banekien han ez zutela batere ongi tratatzen, baina egun gutxi barru askatuko zutela pentsatzen nuen. Zer nekien, bada, nik hango egoeraz!. Anaiari ez nion ezer esan, haserratu egingo baitzen. Bera etortzerako txikiak garbitu, jaten eman eta ohean sartuta nituen jada. Baratzetik jaso berriak ziren tomateekin tomate entsalada goxo bat egin nion, bere gustukoena. Banekien berarentzat ere oso egoera zaila zela, eta poz txiki bat eman nahi izan nion.

Hurrengo goizean, nire anaia lanera joan zenengan, berriro ere bidaiari ekin nion, egun bat lehenagoko ikaraz, baina pozik aldi berean. Trenera iristen ari nintzela, izkina batetik lau mutil gazte atera eta lurrera bota ninduten. Ostikoak eta ukabilkadak eman zizkidaten. "Gorri puta hoi". Nire aitaren ideien kontra zeudelako jipoitu nindutela pentsatu nuen. Odoletan utzi ninduten, baina aita ikusteko gogo eta beharra mina baino handiagoa zen. Bidaia luzea egin ondoren, han nengoen berriro ere, Ondarretako espetxearen aurrean. " Buenos días, vengo a visitar a mi padre" esan nion aurreko eguneko soldaduari. "Ya no se encuentra aquí" erantzun zidan. Erantzun haren aurrean harrituta geratu nintzen. Nora eramanez zuten oraingoan aita? Bat-batean, kartzelaren ateetako bat ireki eta 20 gizon atera ziren ilaran, elkarri lotuta, inguruan bost gizon armatu zituztela. Kamioi txiki batean sartu zituzten, eta haien artean nire aitaren aurpegia ezagutu nuen, itxura penagarria zuen. Deika berarengana korrika abiatu nintzen, baina segituan gelditu ninduten soldaduek. "Maria, Maria!" deiadar egin zidan negarka. Fusilarekin tripan kolpea eman eta isilarazi egin zuten. "¿ A dónde le llevan?!" galdegin nion eusten zidan gizonari. Erantzunik jaso ezean, zereginik gabe, buelta hartu eta trenerantz abiatu nintzen.

20 tiro hotsek zangoak geldiarazi zizkidaten. Odola izoztuta, lurrera erori nintzen. Negar egiteko indarrik ez. Eta ni, laster aita etxean izango zelakoan. Inuzentea.

Nola edo hala, injustizia haren aurrean, amorruren amorruez etxera iritsi nintzen. Horma guztiei ukabilkadak eman eta gero tristura etorri zitzaidan, negargura, bizitzeko gogorik ez nuen jada. Anaia etxera etorri zenean, negar-zotinka kontatu nion aitaren hilketa. Ez zuen ezer esan, besarkatu egin ninduen, leunki, beti bezala.

Egunak aurrera zihoazen, astiro eta astun, guztiak berdin. Oso gaizki pasatzen ari nintzen, bi txikitxoak ziren irrifar bat aterarazten zidaten bakarrak, etxe hartan gelditzen zen alaitasun izpi bakarra. Gauzak oraindik gehiago okertu ezin zitezkeelakoan nengoen.

Bazkaltzen ari ginen batean, atea jo ziguten. Nire anaia joan zen irekitzera eta berriro ere frankista zikin horiek ziren: "¿Jesús Iparraguirre? El alcalde te ha elegido para luchar con nosotros". " Pero yo no puedo señor, tengo una familia que cuidar" esan zien nire anaiak izututa. "¿Prefieres ir a la cárcel?". "No, señor". Han joan zen nire azken esperantza eta babes, aitaren hiltzaileekin, haien alde borrokatzera.

Ohetik altxatzeko gai ere ez nintzela geratu nintzen. Eskerrak, Juanitak egoera hura ikusirik, bere etxean hartu gintuen nire bi neba txikiak eta hirurok.

PROSA

Anaia gerrara joan eta astebetera “Acta de defunción de Jesus Iparraguirre” eskutitza iritsi zitzaidan etxera. Kito, bakarrik nengoen. Nire depresio latzari konponbidea emango ziolakoan, soineko urdinez jantzitako emakume psikiatra bat etorri zen etxera eta Tolosako babes-etxera eramanez ninduten, umezurtz eta nahastuta geratu bainintzen. Beraien helburua ez zen ,ordea, ni osatzea eta bizimodu jasangarriagoa izatea, aitzitik, nire sufrimendua areagotu nahi izan zuten. Anaia txikiengandik banandu ninduten eta joan diren 70 urte hauetan ez dut beraien berririk izan, ez dakit non dauden. Oinarri frankistetan hezi eta errepresio gogorra jasanarazi zidaten. Zorionez, urte luzeetako lanari esker, oroitzapen ilun asko gaingituak ditut jada eta konta dezaket gerrak nire bizitza nola aldatu zuen hilabete gutxi batzuen buruan.

Orain, nire helburu bakarra, bi anaiatxoak aurkitzeaz gain, nire aitaren eta anaiaren gorpuak aurkitu eta merezi duten bezala lurperatzea da, amaren ondoan, denak batera, ni hiltzen naizenean ere beraien ondoan egon nadin, berriro ere familia zoriontsu bat osatuz.

Etsairik handienari ere ez diot opa horrelako bizitzarik, sufrimendua eta beldurra muinetaraino sartuak izan ditudan bizitza.